

ANDRE-DENA-MARIA EGUNEKO MEZA

Lehen irakurgaia

(Apokalipzako emaztea, Elizaren itxura, Maria bezala)

Jondoni Joaniren Apokalipza liburutik 11,19a ; 12, 1-6a. 10ab

- 19** Jainkoaren Tenplua ideki zen zeruan,
eta haren Elkargo-kutxa agertu zen Tenpluan.
- 12,1** Seinale handi bat agertu zen zeruan :
emazte bat, iguzkiz jantzia,
ilargia oinenpean, eta hamabi izarreko korona buruan.
- 2** Haur-beharretan zen, erdimin eta oinazez oihuka.
- 3** Beste seinale bat agertu zen zeruan:
herensuge gorri handi bat, zazpi buru eta hamar adar zituen,
eta buruetan korona bana.
- 4** Haren buztanak zeruko izarren herena herrestan hartu
eta lurrerat bota zuen.
Herensugea, haur-minetan zagon emaztearen aitzinean gelditu zen,
sortu orduko haurraren irensteko.
- 5** Emazteak haurra izan zuen,
herri guziak burdinazko makilaz gobernatuko dituen.
Haurra Jainkoaren tronuraino
eta haren ondoraino eremana izan zen.
- 6** Emazteak, aldiz, basamorturat ihes egin zuen:
han leku bat prestatua zion Jainkoak.
- 10** Orduan, mintzo ozen bat entzun nuen erraiten:
" Orai etorri dira gure Jainkoaren salbamendua,
indarra eta erregetza, eta haren Kristoren boterea."

Balinbada idatzi bat guretzat konprenitzeko errexia ez dena, hori Apokalipza liburua da. Alabainan testo hau, denboran, pertsegituak ziren giristinoentzat idatzia izan zen, eta bururen buru, garaipenaren mezua da hor zabaldua, bainan erdi gorderik bezala, hitz eta itxuren gibelean. "

" *Emazte bat iguzkiz jantzia ...*" Nor da emazte hori ? Gakoa Testamendu Zaharreko idatzietan kausitzen da. Jainkoaren eta Izraelen arteko elkargoaz mintzo denean Biblia, eztei hitza erabiltzen du . "*...Neure emazte eginen zaitut betirako, gure eskontza legezkoa eta zuzena izanen da ...*" (Os 2, 21). Izaik Mesiasen etortzea erditze bat bezala ikusten du, Mesias Izraelen sortuko da. "*Erdiminak baino lehen izan du Sionek haurra ...*" (Is 66, 7). Hemen aipatua den emazte hori beraz Izrael da . Oinazetan diren orduko giristinoak ere gizarte berri baten sortzen ari dira .

Mementoko, guduak segitzen du. "*...Haren (herensugearen) buztanak zeruko izarren herena herrestan hartu eta lurrerat bota zuen...*" Bainan sortu den haurra ez du irentsi. Haur hori Mesias da . "*...Orai etorri dira Jainkoaren salbamendua , indarra eta erregetza, eta haren Kristoren boterea. "Haurra Jainkoaren tronuraino eta haren ondoraino eremana izan zen..."* Horrek Kristo hiletarik piztua du oroitarazten. Jesus zeruan da, bainan dizipuluak munduan geldituak dira...desertuan. Jainkoak lagunduko ditu. Herensugeak ez badu zeruan irabazi, ez du ere irabaziko lurrean .

**Leloa: Zoin lorioski zaukun igana
Dena iguzki, Ama Birjina.**

**Entzun, alaba, eta beha,
Entzun gogotik errailea :
Ahantz zurea zen jendea,
Ahantz aitaren etxaldea**

**Eta orduan Erregek so
Zure ederra du nahiko;
Zure jauna da sekulako:
Ahuspez eror belauniko**

**Jende guziak heldu dire,
Gauzak eskainiz eta urre.
Herriko jaunak heldu ere,
Zure begiak nahiz bere.**

**Guziz ederra erregina:
Zoin dena urre dabilana.
Sartzen da sartzen Jauna gana,
Birjinak lagun zoin apaina.
Sartzen da hura, sartzen oro
Bai kantu, jauzi; bozkario!**

Hemen ere hiztegia espos, eztei, emazte-gai...mundu hortakoa da. Oze profetak du lehen aldikotz Izrael emazte ezkondu bati konparatu : "...*Nik, nihaurek, lilluratuko dut...basamorturat eremanen eta bihotzerat mintzatuko nitzaio...Egun hartan - hala dio nere Jaunak - Ene Senar erranen dautazu ...*" (Os 2,16-18) . Berdin gero Jeremiasek, Ezekielek, bigarren eta hirugarren Izaik Jainkoaren eta bere populuaeren arteko eztei horiek goretziko dituzte.

Andere espos hori, geroan, ez da beti leial egonen. Oze profetak Izrael emagaldutzat joko du. Bainan Jainkoa beti hor, barkatzeko prest : " ...*Bainan Jaunak berriz ere dei egin dauzu...Mendiak beren lekutik aldentuko eta munoak zalantzan balira ere, nere maitasuna ez da zure ganik baztertuko ...*" (Is 54, 4-10)

Beraz salmo hau ere eztei horien hiztegiaren hari beretik doa. Neskatxak Jainko faltsuak utzi beharko ditu ahatik: "...*Ahantz zurea zen jendea...eta erregeak so, zure ederra du nahiko.*" Neskatxa hori Izrael da, Jainko faltsuetarat hain errecki lerratzen den Izrael. Biblian, ez du bakarrik Izrael Jainkoak emaztetzat hartu nahi bainan ere gizarte osoa.

Elizak, Mariaren zeruratzea eta haren Jainkoaren aintzan sartzea duelarik ospatzen, gizarte guzia du ikusten, Mariaren ondotik, Jainkoaren maitasunean murgiltzen.

Bigarren irakurgaia

(Kristok berekin eremaiten gaitu betiko bizitzera)

Jondoni Paulok Korintiarreri 1a : 15, 20-27a

- Haurrideak,**
20 piztu da Kristo hilen artetik,
heriotzetik piztuko direnetan lehena.
21 Zeren, heriotzea gizon baten bidez etorri zen bezala,
gizon baten bidez etorri da hilen piztea ere.
22 Alabainan, Adamen baitan hiltzen dira gizaki guziak;
Kristoren baitan guziak bizirat itzuliko dira,
23 Bainan bakotxa bere aldian:
lehenik Kristo;
gero, Kristorenak, hau berriz etorriko denean.
24 Gero, azkena izanen da,
Kristok , gaizkiaren nagusigo,
indar eta botere guziak ezeztatu ondoan
Jainko Aitari erregetza itzuliko diolarik.
25 Kristok errege izan behar baitu,
Jainkoak etsai guziak haren oinen pean ezarri arte.
26 Azkena ezeztatuko den etsaia, heriotzea izanen da.
27 Zeren gauza guziak haren oinen pean ezarri ditu Jainkoak.

Mariaren zerurat altxatzea ospatzen dugun egunean, Elizak proposatzen dauku Pauloren testo bat erraiten daukuna Jesusen pizteak deuseztatzen duela Adamek egina. Maria sinetsi duen bat izan da. Elixabetek erranen dion bezala : "*Dohatsua zu, sinetsi baituzu ...*" Mariak ihardetsi zuen : "*Huna Jaunaren neskatoa, gerta bekik zuk erran bezala .*" (Lk 1,38)

Biblia guzian ikusten da Jainkoak galdatzen duena hau dela : Haren nahiaren egitea . Hori zaie eskatu Abraham, Mois eta Samueli. Gure Aitan ere hori dugu eskatzen : "Egin bedi zure nahia". Jesusek, bere lurreko bizian erakutsi duen helburu nagusia da : "*Nere janaria , igorri nauenaren nahia egitea da.*" (Jn 4,34). Eta pasione denboran : "*Nere Aita, ahal bada, nereganik urrun zazu edari samin hau. Halere egin bedi Zuk nahi bezala, ez nik nahi bezala.*" (Mt. 26,39)

Jesusek bere Aitari obeditu nahi badio, Hari konfiantza egiten diolaketz da. Horrela mintza ditaike Jesusen fedez, bizira deraman konfiantzazko fedez. Adam, dudatzen duen gizona da, konfiantzarik egiten ez duena. Paulorentzat Adam egungo gizon mota bat da. Judu erakasleek dioten bezala : "*Gutarik bakotxa beretzat Adam da.*"

"*Adamen baitan hiltzen dira gizaki guziak...*" Gu ere, konfiantza eskas horrek herioaren bidean gaitu ezartzen ."*...Betiereko Bizia huntan da, ezagut zaitzaten Zu, egiazko Jainko bakarra, eta Zuk igorri duzun Jesus, Mesias.*" (Jn 17,13) Biblian "ezagutzea" hitzak, "sinestea" erran nahi du, maitatzea, konfiantza egitea. Dohatsu, Mariak bezala " sinetsi dutenak. "

Ebanjelioa

Alleluia, alleluia
Zeruetako atea zaiku gaur ideki :
Maria zaiku zeruratu, gaur aingeruek egin kantu!

Jesu Kristoren Ebanjelioa san Luken liburutik 1, 39-56

- 39 Egun heietan, Maria bizi-bizia abiatu zen**
Judeako mendialdeko herri baterat.
40 Zakariasen etxean sarturik, Elixabeti agur egin zion.
41 Elixabetek Mariaren agurra entzun orduko,
haurrak jauzi egin zion sabelean.

- 42 **Orduan, Izpiritu Sainduaz bete zen Elixabet,
eta oihu handi batean erran zuen:
" Benedikatua zu emazte guzien artean,
eta benedikatua zure sabeleko fruitua!**
- 43 **Nor naiz ni, nere Jaunaren ama etor dakidan?**
- 44 **Zure agurra nere beharrietarat heldu orduko,
huna non haurrak bozkarioz jauzi egin dautan sabelean.**
- 45 **Zoriontsua zira, sinetsi baituzu
Jaunaren partez erran zaitzuna beteko dela."**
- 46 **Orduan, Mariak erran zuen:
" Goresten du nere arimak Jauna,
47 eta bozkarioz jauzten zait gogoa
nere Jainko Salbatzailearen baitan.**
- 48 **Bere neskato apalari behatu baitio;
dohatsu deituko naute gaurdanik gizaldi guziek.**
- 49 **Miragarriak egin dauzkit Ahalguzidunak;
haren izena Saindua.**
- 50 **Haren urrikalmendua badoa mendez mende
haren beldurra dutenenganat.**
- 51 **Bere besoaren indarra erabili du,
buru harroak barreiatu.**
- 52 **Beren alkietarik bota ditu handi-mandiak,
apalak, aldiz, goraltxatu.**
- 53 **Ontasunez bete ditu gose zaudenak,
eta esku hutsik utzi ainitz zutenak.**
- 54 **Laguntza eman dio Izrael bere zerbitzariari,
bere urrikalmenduaz orroiturik.**
- 55 **Gure arbasoeri hala zioten hitzeman,
Abrahami eta haren ondokoeri betiko errana."**
- 56 **Maria hiru ilabete inguru egon zen Elixabetekin;
gero, etxerat itzuli zen.**

" Orduan Izpiritu Sainduaz bete zen Elixabet..." Horrek erran nahi du Izpirituak berak duela jakinarazten, sortuko dena nor den : Jauna ! Lukek badaki Elixabeten errana: " *benedikatua zu emazte guzien artean* " aurkitzen dela kasik berdin Judit-en liburuan (13, 18) : " *Benedika zaitzala , nere alaba, goi-goiko Jainkoak emazte guzien gainetik !* " Judit-eri solas horiek erranak zaizkio, etsaien jenerala hil eta, garaipena eman baitzaio. Berdin Mariak gaizkiaren kontrako gudua irabazteko bidean emaiten du gizartea. Ez da hori garaipen ttipiagoa.

Elixabetek dio Mariari: " *Zure agurra nere beharrietarat heldu orduko, huna nun haurrak bozkarioz jauzi egin dautan sabelean!*" Haur hori Jondoni Joani Bataiatzailea da eta Izpiritu Sainduaz beterik da bozkarioetan sartzan. Hor ere Izpiritua bera da agertzen. Berriz ere entzun dezagun Elixabet : " *Nor naiz ni nere Jainkoaren ama etor dakidan ?* "

Hitz horiek errespetua adiarazten dute bai eta ere bozkarioa. Bi sendimendu horiek zituen ukan Dabidek ere Elkargoaren Arka Jerusalemek ekarri nahi ukan zuenean. Maria batasun arka berria da. Arka hori Jainkoaren egoitza zen. Mariak ere, berekin dakar Jainkoa, eta Haren bidez " *hitza gizon egin da, eta gure artean bizi izan da .* " (Jn 1,14). Hori, beraz, Mariari esker, Elixabetek dioen bezala : " *Zoriontsua zira sinetsi baituzu Jaunaren partez erran zaitzuna beteko zela .* "

Mariak Elixabeti egin erantzuna ezagutzen dugu, Magnifikata da. Kantu huntako zati gehienetan salmoetako erran berak entzuten dira. Umila da Maria. Gogoz dazkien otoitzen hitzak ditu errepikatzen. Bibliatik ikasia zaio hor Mariari gogoratzen : Sinesteak diozka sortzen.